

IRAGARKIAK

Obra, zerbitzu eta horniduren enkanteak eta lehiaketak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

1002

IRAGARKIA, zeinaren bidez lizitatzen baita 2018an Euskal Autonomia Erkidegoko 22 zentimetroko hegaldi fotogrametrikoa egiteko zerbitzua (Espedientea: 007SV/2018).

1.– Entitate esleitzaila.

- a) Erakundea: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Zerbitzu-zuzendaria.
- b) Espedientea izapidetzen ari den bulegoa: Kontratazio Mahaia (Zerbitzu Zuzendaritza).
- c) Espediente-zenbakia: 007SV/2018.

2.– Kontratuaren ezaugarriak.

- a) Helburua: Euskal Autonomia Erkidegoko 22 zentimetroko hegaldi fotogrametrikoa egitea.
- b) Multzotan zatitzea: ez da multzotan zatitu.
- c) Burutzeko lekua: enpresa esleipendunaren egoitzan eta Euskadiko lurraldean.
- d) Burutzeko epea: 6 hilabete.

3.– Izapideak, prozedura eta esleitzeko modua.

- a) Izapideak: arruntak.
- b) Prozedura: irekia.
- c) Esleitzeko modua: hainbat irizpide.

4.– Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: hirurogeita hemezortzi mila bostehun eta hamabi euro eta berrogei zentimo (78.512,40) gehi hamasei mila laurehun eta berrogeita hamazazpi euro eta hirurogei zentimo (16.457,60) BEZarenak. Beraz, guztira, laurogeita hamabost mila (95.000) euro.

5.– Kontratuaren balio zenbatetsia: hirurogeita hemezortzi mila bostehun eta hamabi euro eta berrogei zentimo (78.512,40).

6.– Behin-behineko bermea: ez dago jarri beharrik.

7.– Agiriak eta argibideak lortzeko.

- a) Entitatea: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.
- b) Helbidea: Donostia kalea 1.
- c) Herria eta posta-kodea: 01010 Vitoria-Gasteiz.
- d) Telefonoa: 945 01 98 26.
- e) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: 2018ko martxoaren 12a.

f) Kontratu honi buruzko informazio guztia webgune honetan eskura daiteke: www.contratacion.info edo www.euskadi.eus/contratacion

8.– Kontratistaren betebeharrak.

Sailkapena: ez.

Kaudimenari buruzko eskakizunak eta egiaztatze modua:

A) Ekonomia- eta finantza-kaudimena: urteko negozio-bolumena Merkataritzako Erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutako urteko kontuen bidez egiaztatuko dira, enpresaria inskribaturik dagoen erregistroa kontuan hartuta. Merkataritzako Erregistroan inskribaturik ez dauden enpresariak urteko negozio-bolumena egiaztatuko dute Merkataritzako Erregistroak legez-tatutako inbentarioen eta urteko kontuen liburuen bitartez. Beste kasuan, urteko negozio-bolumena Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren likidazioaren bitartez egiaztatuko da. Enpresaren azken hiru ekitaldietako batean (2015, 2016 eta 2017) urteko negozio-bolumena, gutxienez, 100.000 eurokoa izan behar da.

B) Kaudimen teknikoa:

a) Azken bost urteetan egindako zerbitzu nagusien edo lanen zerrenda aurkeztu beharko dute enpresek, lan edo zerbitzu horien zenbatekoa, datak eta onuradunak (publikoak nahiz pribatuak) zehaztuko dituen. Zerbitzuak egiaztatze organo eskudunak egindako edo bisaturiko ziurtagiriak aurkeztu beharko dira hartzailea sektore publikokoa izan bada; eta pertsona pribatua bada, pertsona horrek egindako ziurtagiria edo enpresaburuaren aitortpena. Azken 5 urteetan, gutxienez, kontratuaren xedearen antzeko lau lan egin behar izan ditu.

b) Lantaldea osatuko duten pertsonen zerrenda eta horien titulua edo Elkargoaren ziurtagiria. Halaber, pertsona horien curriculum vitae aurkeztu behar dira, bere eskarmentua egiaztatuz. Lantaldea, gutxienez, teknikari hauek osatu behar dute:

b.1.– Geodesiako eta Kartografiako ingeniaria, Topografiako ingeniari teknikoa edo Geomatika eta Topografiako ingeniaria, hegaldi fotogrametrikoak zuzentzen edo LIDARen, gutxienez, hiru urteko eskarmentua duena.

b.2.– Hegazkinetako tresna fotogrametrikoetan eta hegaldiaren datuak prozesatzen, gutxienez, urtebeteko eskarmentua duen pertsona.

b.3.– Hegaldi fotogrametrikoetan, gutxienez, urtebeteko eskarmentua duen pilotua.

c) Kontratuaren egikaritzan gutxienerako baliabideak izango dituela adierazi eta horien deskribapen zehatza aurkeztu behar da. Gutxienerako baliabideak honako hauek izango dira:

c.1.– Gutxienez 1 edo 2 Hz-ko frekuentzia bikoitzeko GNSS nabigazio-sistema, hegazkinean jarritakoa. Haren serie-zenbakia zehaztu behar da.

c.2.– (IMU/INS) sistema inertziala, ≥ 200 Hz datu-erregistrodun frekuentziarekin, bere serie-zenbakia zehaztuta.

c.3.– Eskaintzak aurkezteko azken-egunean indarrean dagoen aeronabegabiltate-ziurtagiria duen hegazkina. Hegazkinaren matrikulari buruzko agiriak aurkeztu behar dira.

c.4.– Formatu matritzialeko eta gutxienez 100 mm fokuko kamera fotogrametriko digitala, eskaintzak aurkezteko azken-egunean bi urtetik beherako antzintasun egiaztagiriduna.

c.5.– FMC (Forward Motion Compensation) sistema.

c.6.– Plataforma giroestabilizatu automatikoa.

c.7.– Aerotriangelaketa digitalerako softwarea.

9.– Eskaintzak edo parte hartzeko eskabideak aurkeztea:

a) Agiriak aurkezteko azken eguna: 2018ko martxoaren 13a, 12:00ak baino lehen.

b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: administrazio-klausula zehatzen agirian adierazten direnak.

c) Eskabideak aurkezteko lekua:

c.1.– Elektronikoki lizitatuz gero, honako web-orriaren bidez egin daiteke aurkezpena: www.contratacion.info edo www.euskadi.eus/contratacion.

c.2.– Paperean lizitatuz gero, honako leku honetan:

1) Erakundea: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.

2) Helbidea: eskuan eraman beharko dira Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Erregistro Nagusira, Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1era (Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia), goian aipatutako epean. Postaz ere bidali ahal izango dira, eta eskaintza postan zein egunetan jarri den, egun berean kontratazio organoari telex, telekopia, edo telegrama bidez jakinarazi eta egiaztatu beharko zaio. Eskakizun bi horiek betetzen ez badira, ez dira eskaintzak onartuko. Nolanahi ere, eskaintza postaz bidali eta hamar egun naturaleko epean jasotzen ez bada, inolaz ere ez da onartuko.

3) Herria eta posta kodea: 01010 - Vitoria-Gasteiz (Álava).

d) Lizitatuzaileak zenbat denbora eutsi behar dion eskaintzari: 2 hilabete, proposamenak irekitzen direnetik aurrera kontatuta.

e) Aldaerak: ez da aldaerarik edo alternatibarik onartuko.

f) Prozedura mugatua bada, eskaintzak aurkezteko gonbita egin nahi zaien enpresen kopurua edo gutxienezko edo gehienezko kopurua: ez dago horrelakorik.

10.– Esleitzeko irizpideak.

a) Formulak aplikatuz automatikoki balioestekoak diren irizpideak. Ponderazioa, guztira: 51 puntu.

Eskaintza ekonomikoa. Ponderazioa: 51 puntu. Formula: ikus karatularen 30.2.1.a) atala.

b) Balio-iritzietan oinarrituta aplikatu behar diren irizpideak: Ponderazioa, guztira: 49 puntu.

A) Hegaldi fotogrametrikoa egitea eta haren planifikazioa: 15 puntu. Ikusi karatularen 30.2.1.b) atala.

B) Landa-lanari sostengua ematea eta aerotringulazioa. Ponderazioa: 10 puntu. Ikusi karatularen 30.2.1.b) atala.

C) Hegaldi fotogrametrikotan lortutako datuak prozesatzeko metodologia. Ponderazioa: 12 puntu. Ikusi karatularen 30.2.1.b) atala.

D) Lanen kalitatea bermatzeko prozedura. Ponderazioa: 12 puntu. Ikusi karatularen 30.2.1.b) atala.

11.– «C» gutunazalak irekitzeko ekitaldi publikoa.

a) Entitatea: Kontratazio Mahaia (Zerbitzu Zuzendaritza).

b) Herria: 01010 - Vitoria-Gasteiz (Araba).

c) Data: 2018ko martxoaren 22a.

d) Ordua: 10:30.

e) Lekua: Lakua Ilko 1. aretoa, Donostia kalea 1 (Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia).

12.– «B» gutunazalak (formulen bidez baloratu beharreko irizpideak) irekitzeko ekitaldi publikoa.

a) Entitatea: Kontratazio Mahaia (Zerbitzu Zuzendaritza).

b) Herria: 01010, Vitoria-Gasteiz (Araba).

c) Data: 2018ko apirilaren 5a.

d) Ordua: 11:00.

e) Lekua: Lakua Ilko 1. aretoa, Donostia kalea 1 (Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia).

13.– Bestelako argibideak: ez.

14.– Iragarpen-gastuak: enpresa esleipendunaren kontura.

15.– Iragarkia Europako Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidalitako eguna: ez dago horrelakorik.

16.– Deialdiari buruzko informazioa eta pleguak eskuratzeko atari informatikoa edo webgunea: www.contratacion.info edo www.euskadi.eus/contratacion

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 13a.

Zerbitzu zuzendaria,
PALOMA USATORRE MINGO.